

Gaur 50 urte, gerratean USA-ko enbaxadorea Hondarribian

Hondarribia, 6. zk., 1986-09: 9.

Gaur 50 urte, gerra zen Hondarribian.

Garai hura bizi izan zuen asko bizi da gaur, eta badaki zer gertatu zen. Bakoitzak berea daki, noski; eta kontatu dizkie gertatuak hainbat aldiz seme-alabei, bilobei, lagunei; egia esan, familia bakoitzak badu bere historia: berrogeita hamar urte luze hauetan kontatu ahal izan dena, konta gabe geratu ezin zena.

Hala ere penak balio du, nik uste, garai hartan Hondarribian aurkitzen zen historigile batek hemen ikusitakotik zer idatzi zuen jakitea.

Hau, USA-ko Enbaxadore zen Claude G. Bowers, historigilea, izan zen.

Madrilen bizi zen, baina udak Hondarribian pasatzen zituen: "Lore Artea" txaletean; mendixka baten gainean zegoela esaten du, hondartzara zihoan bide baten ertzean. "Oso toki polita", dio. Hemen jakin zuen Madriletik heldu berrian, Calvo Sotelo hil zutela (Uztailak 13). Hondarribian ez zen istilurik sumatzen; baina laster, 16an, "jakin nuen hurrengo egunean, eguerdiko hamabitan, jarriko zela altxamendua martxan"; komunikabide guztiak moztuak geratu ziren, Donibane Lohitzunera joan nintzen, eta itzultzerakoan Irunen Schmeling-Joe Louis-en arteko borroka ikusi nuen zinemagela txiki batetan".

Hurrengo egunean zabaldu zen Hondarribian, Sevilla, Cádiz, Pamplona, Burgos eta Bartzelona altxatuen eskuetan zirela (gero azken hiri honi zegokiona gezurtatu bazen ere). Arrantzaleak taldeka eta paketsu ikusi nituen kalean. "Plazan entzun genuen gaztetxo batek gogoz eta serio jotzen ari zen danbor-zarata, gazteei dei egiten. Beti gogora ekartzen dit irudi eta hots honek demokraziaren alde burrukatu ziren gizonen izpiritua.

Bederatziak jo eta gero etxetik ezin gienen irten. Gau honetan, zakuak hondarrez betetzen aritu zen gazte mordo bat Irunen barrikadak jartzeko. Romanones-eko Kondea hor nuen inguruko etxe batean, arazoa hiruzpalau eguneko kontua izango zenaren ustean; neuk ez nuen hain erraza ikusten, alderantziz: Armada eta Herriaren arteko burruka sumatzen nion neuk giroari. Bostgarren egunean jakin nuen Loiolako kuartela errenditu zela. Gaztetxetxo deika berriz, faszistak muga pasa nahiean zebiltzela, eta ezagutzen ez zen inor ez etxean hartzeko oharra boteaz. Biharamunean telefono guztiak moztuak zeuden eta isolatuta geratu gienen. Donostiarekin hitzegiteko baimena eman zidaten.

"Hurrengo goizean leihotik itsasora begira nengoela ikusi nuen "Cayuga" untzia sartzen, USAko banderarekin. Jaitsi nintzen lurtean ongietorria ematera, eta armatuak zeuden herritarrak ere egin zuten ahalegina ongietorri ofiziala eratzeko. Egun honetan bertan ikusi nituen Errenteriatik zetozen gudari batzu "Concha" hotelaren aurrean geratu zen kotxe batetan.

"Egun hauetan idatzi nion neri zegokidan ministroari, Cordell Hull-i, Altxamenduaren lagunak zeintzuk ziren adierazteko: 1) Orden zaharra nahiago zuten monarkikoak; 2) Lurjabe handiak; 3) Langileak "bere tokian" eduki nahi zituzten industrari eta bankariak; 4) Eliza eta Estatua bakoitza bere tokian ikusi nahi ez zituzten Elizako agintariak; 5) Diktadura berri baten zain zeuden militarrek, eta 6) Elementu faszistak.

"Nik neuk ez nuen nahi Frantziara joan, baina hartara behartua aurkitu nintzen azkenean.

"Eta sentimentu batekin irten nintzen: 'No intervención' izeneko erakundeak Errepublikari Nazi-en eskuetan utzi nahi zuela; eta hau, 'Pertinax', Frantziako kazetari famatuak, ondo probatu zuen bezala, Ingalaterraren txantajea tarteko: Frantziako Blum Presidenteari esan zion, bidaltzeko asmotan zen egazkinak eta armak Espainiara bidaltzen bazituen, Ingalaterrak ez zuela errespetatuko Frantziarekin zuen hitzarmena Alemaniaren aurka elkar egiteko".

Hauek denak, *Misión en España* liburuan geratu dira; hemen amaitu ziren Bowers-en diplomazi lanak; nonnahi, eta USAn ere bai, *irabazleekin ongi dauden gizonak* behar izaten dira diplomazian.